

LEIOAKO SANTA AGEDA KANTUEN XXXIV. LEHIAKETA

Leioako Agate Deuna eguneko XXXIV. Kanta Lehiaketa deitu du Leioako Udalak, honako OINARRI hauekin:

Agate Deuneko lehiaketa udalerriko auzo desberdinetan zehar egingo da, 2025eko otsailaren 4an, asteartea.

Bi maila izango ditu:

- A maila - 16 urtera arte. Goizez
- B maila - 16 urtetik aurrera. Arratsaldez.

Abesbatzak ahotsez eta musika-tresnez osatuta egon daitezke, eta gutxienez, 12 pertsonako taldeak izan behar dute

Kantatzeko 5 gune ezarri dira, abesbatza bakoitzak ondoen datorkiona aukera dezan:

- 1. Gunea: LAMIAKO.
Nagusien Etxea, Txopoeta, Txorierrri eta Langileria.
- 2. Gunea: PINUETA-IBAIONDO.
Pinueta Kulturgunea, Cervantes Plaza, Beiraren putz-egilearen estatuaren ingurunea eta Ibaiondo.
- 3. Gunea: ERDIGUNEA.
Ikea Plaza, Euskal Etxeen Plaza, Jose Ramon Aketxe Plaza eta Errekalde, Sabino Arana 76-88 (Plaza Gorria).
- 4. Gunea: SAN BARTOLOME - ARTATZAGANA.
Artatza kalea, Negurigane, Baseliza eta Artatzagana Plaza.
- 5. Gunea: KANDELAZUBIETA - UDONDO
Kandelazubieta kalea eta Udondo Boulebarra.

Abesbatzak gunea hautatu ondoren, gune horren barruan kantatu beharko du, antolakuntzak ezarritako lekuetan. Abesbatzei aukeratutako guneko leku batean abesteko ordua esleituko zaie. Leku horietaz gain, abesbatza bakoitzak beste leku batzuetan ere abestu dezake, bere gunearen barruan edo gunetik kanpo.

Epaimahaia musika-arloko profesionalek eta tradizioko eta abesbatzako musikarekin lotura duten pertsonen osatuko dute.

Epaimahaiak talde parte-hartzaile bakoitzari esleitutako guneko jarduera behatuko du eta bere erabakia adieraziko du, ondorengoak bezalako aspektuak kontuan hartuta eta balioetsita: ahotsak ondo enpastatuta egotea, perkusioaren erritmoa, ahoskatzea, bakarlariak egotea, ahotsen ñabardurak, taldeak ematen duen azken itxura, jantziak, parte-hartzea eta berdintasuna (parte-hartzaileen kopurua eta sexu eta adin ezberdinetakoak izatea), apaingarriak eta girotea.

Hauek izango dira sariak kategoria bakoitzean:

- 1. saria - 400 euro, garaikurra eta diploma.
- 2. saria - 300 euro, garaikurra eta diploma.
- 3. saria - 200 euro, garaikurra eta diploma.

Oinarri hauetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten abesbatzek 60 euroko dieta jasoko dute.

Izen emateko epea 2025eko urtarrilaren 24an bukatuko da eta ondokoetan egin behar da:

- Kultur Leioako harreran, aurrez aurre.
Jose Ramon Aketxe plaza, 11.
Astelehenetik ostiralera arte, 9:00-20:00.
- Posta elektronikoa bidez: infokultur@leioa.eus
- Telefonoz, 94 607 25 70 zenbakira deituta.

Izen ematea bideratzeko, ondoko datuak adierazi beharko dira:

- Taldearen izena eta partaide kopurua.
- Maila eta aukeratutako gunea.
- Arduradunaren izen-abizenak, NANa, telefonoa eta posta elektronikoa helbidea.

Dirua eskatzea talde bakoitzaren ardurapekoa eta askatasunpekoa da.

SARI BANAKETA: otsailaren 8an, larunbata, 12:00etan Kultur Leioako Erakusketa Aretoan izango da.

